

# Pil



# bi ear

1997ko Iraila

7. Zenbakia



K3



***Bizikleta gustatzen bazaizu!***

# **BICIPRECISIÓN IGARTUA**

*Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile bakarra*

*Iñigo Igartua*



**500 m<sup>2</sup>, ALMAZEN eta DENDA BERRIA**

**BIZIKLETAK :**

KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL, TANDEM eta  
ZIKLO-KROSSerakoak.

Era guztietako **ERROPAK, OINETAKO** edo **ZAPATILAK**

Era guztietako **KONPONKETA** eta **ARREGLOAK**

**BIZIKLETAK GARBITU** eta **ENGRASE ZERBITZUA**

Zubieta kalea 5-7

Tfnoa. 943 - 76 11 21 / Faxe 76 06 75

Mobila 989 76 11 21

posta kutxa 9

20570 BERGARA

Gipuzkoa

# **GOL S.A. industriak**

***Tornileria-estanzioa***

***eta extrusioa hotzean***

Tfnoa. 943 - 75 21 00

Telex 38665GOL-E

**20590 SORALUZE**

## Auzoetan gero eta jai haundiagoak

Gure herriko auzoetan egiten diren jaiak berriz ere indarra hartzen ari dira, azken urte hauetan. Adineko jendeak, jai hauen garairik onenak pasatuta daudela dio eta beharbada arrazoi izango du, baina zenbaitek garai berezi haietan egiten ziren jaiak zuten giro eder hura lortzen saiatu beharra dagoela uste du (nahiz lan zaila edo ezinezkoa izango dela badakiten). Dirudienez (aurtengo jaiak ikusita) horrela uste dute San Andres, Ezoz, San Martzial, Irure eta Txurruka auzoko jaien antolatzaileek; ilusio haundiz, lan asko eginez eta arriskatuz, aspaldian hustutzen ari ziren plazak betetzea lortu baitute.

Eskerrikasko (hor goikoei) hain jai eta giro politik sortzearen eta hain ejenplu ederra ematearren.

ZORIONAK ETA SEGI HORRELA!!

## AURKIBIDEA

<i>Orokorrak.....</i>	<i>1</i>
<i>Gutunak eta iritziak.....</i>	<i>2</i>
<i>Gizartea.....</i>	<i>6</i>
<i>Gaurkotasuna.....</i>	<i>8</i>
<i>Kale inkesta.....</i>	<i>10</i>
<i>Kirola.....</i>	<i>11</i>
<i>Jaixak.....</i>	<i>16</i>
<i>Sutondoaren epelean.....</i>	<i>18</i>
<i>Musika kontuak.....</i>	<i>20</i>
<i>Kultura.....</i>	<i>24</i>
<i>Horoskopoa eta denborapasak.....</i>	<i>26</i>
<i>Sukaldaritza.....</i>	<i>28</i>
<i>Txikitxoko.....</i>	<i>29</i>
<i>Agenda.....</i>	<i>30</i>
<i>Olerkia.....</i>	<i>32</i>
<i>Lehiaketa.....</i>	<i>33</i>
<i>Hormatzulo.....</i>	<i>34</i>

### Pil-Pilean (Egoitz Unamuno)

**Argitaratzailea:** Pil Pilean Kultur Elkarte. 27 Posta Kutxatila. **Erredakzio kontseilua:** Gizarte saila: Eduardo Pombar, Maite Etxeberria. **Gaurkotasun saila:** Aitor Gabilondo, Maite Elizburu. **Kale Inkesta:** Amaia Agirre, Oihana Garitano, Ainhoa Artolazabal. **Kirol saila:** Mikel Gartzia, Iñaki Alberdi. **Kultura saila:** Gurutze Ariznabarreta, **Denborapasak:** Erredakzioa. **Musika saila:** Pedro Deza.

**Lehiaketa:** Gurutze Ariznabarreta. **Sutondoaren Epelean:** Gorka Prieto. **Hormatzulotik begira:** Maite Etxeberria. **Kronologia:** Egoitz eta Ubane. **Sukaldaritza** Ubane Madera, Loiola Madera, Sabin Mendizabal, Egoitz Unamuno, Jose Ramon. **Horoskopoa:** Oskar Elizburu. **saila:** Oihana Garitano.

**Bitxikeriak:** Ubane.

**Txikitxoko:** Plaentxi Herri Ikastola. **Agenda:** Elene Alberdi eta Maite Elizburu. **Argazki arloa:** Gurutze eta Amaia **Diseinua eta maketazioa:** Erredakzioa. **Hizkuntza arduraduna:** Soralueko AEK.

**Publizitatea:** Erredakzioa. **Tirada:** 1300 ale. **Inprimategia:** K3 (Bergara). **Copyright-a:** Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea :  
**SORALUZEGO UDALA**

## Autopista zeinentzat???

Azkenengo partez, ixilik edo ezkutuan dagoen gaia bada ere, zurrumurru fidagarriek esaten dute Maltzaga-Urbina autopistaren lanak laster hasiko direla.

P.N.V., P.S.O.E., E.A. eta P.Pren erabakiz, lanak aurtengo udazkenean hasiko omen dira eta 2002. urterako amaitu. Prioritate handiko obra dela diote.

Baina informazio gutxi eskeintzen digute honi buruz herriko agintariek. Akaso beraiek ere, ezer gutxi dakitelako edota, interes gutxi jartzen dutelako horrelako "obra faranoico" baten aurrean, Soraluzen hain eragin handia izango duen obra baten aurrean. Hemen harrigarria egiten zaigu, Soraluzeko P.N.V.ak orain dela gutxi kaleratutako txosten batean, lorpen bezala aipatzen zuena: "bere garaian egin zen alegazioari esker, Maltzaga-Urbina autobidea ez dadila saihebidet gainaldetik pasatu". Badirudi tunelek, zubiek, ..., ez diotela inongo kalterik egiten gure inguruneari...

Interesa jarri dugunok, proiektua ezagutuz, eragin ekologiko ikaragarria sortuko duen azpiegitura lana dela ikusi dugu. Lan honen berezko ezaugarriak, hau da, zubi handien eraikuntza, lur mugimendu garrantzitsu eta sortuko diren itxidura eta oztopoak auzo, baserri, erreka, eta mendietan eragina izango du, eta interes handiko zenbait toki desagertzeko arriskua ere badago.

Deba Beheko bailararen ekonomia bultzatzeko ezinbesteko lanak bezala saldu nahi dute, ekonomia eragilearen zuzperzea ekarriko duena, Europa hurbilduko gaifuen eta barne komunikazioa hobetuko duena.

Benetan, norbaitek sinistu al dezake autopista batek gure barne- komunikazioa hobetuko duenik?

edota autopista honek, langabezia prekarietatea murriztuko duenik...???

Herritarren mesederako edota beste batzuen mesederako da???

Garbi baino garbiago dagoena da hemen dirua dagoela jokoan. Momentu honetan "operazio borobila" nahi dute martxan jartzea. Maltzaga-Urbina egin ahal izateko finantziario pribatua behar da, 100.000 milioitik gora, eta horretarako Europistasekoekin harremanetan dira. Enpresa honek obra horretan sartzeko, A-8 Bilbo-Behobia autopistako kontsezioren luzapena eskatzen du, eta horrela poltsikoak betetzen jarraitu. Ez dugu ahaztu behar Europistaseko buru bat, Pradera (P.N.V.ko diputatu nagusia izandakoa) dela.

Ez die erantzuten bailarak dituen komunikazio beharrei. "Atajo" antzerako bat baino ez da Europatik datorren trafikorako, izan ere 10 minutu aurreratuko du beste ibilbidea, hau da, N-1 ean eman dezakeen denborarekin konparatuz. Eta ezin da justifikatu horrelako obra millonario bat, 15.000 ibilgailuei buruz ari garenean, ordu larrietan, eta igarri ere egiten ez den denbora aurreratzen denean.

Badaude beste proposamen batzuk, beste aukera batzuk. Hain erasokor eta desestabilizatzaileak ez direnak. Oraingo trasaketan oinarritu behar da soluzioa, egin diren saihebidet erabiliz, hauek hobetuz, hirugarren karrila, errotanda, desdoblamentu, etab. etan oinarrituz.

Soraluzentzat eta bailara guztiarentzat errentagarriagoa eta arinagoa izango litzateke.

SORALUZKO HERRI

BATASUNA

## Bizitzak, musikaz estalita soinu hobea du.

Egunak datoz, egunak doaz eta gaurkoak ere aurrera egin du eta nik ere egunarekin bat egin dut. Zeren pentsatzen hasita, zer da eguna? Denbora zati bat, bizitza zati bat. Izan liteke bizitza guztia, baina etorri beharko dena, hau da etorkizuna. Baina une bat hartzen badugu, bizitzako momentu bakarrak, bizitza unex-une bizitzea, orduan, izpiritualki begira diezaiokegu gure barruari. Heldu naiz ulertzera edo jakitera nire izaera eta burujabetasuna, beste gizakietaz mozorrotzen baldin badut, nahita edo nahigabe, gertatzen denak, nire izaerari kalte dakarkiola. Ez naizelako nire burujabetasunaz baliatzen baizik eta mozorrotutako laguntzar eta honelako jokoerak, azkenean norbera den gizakiaren aurkakoa izaten dira.

Nire ustez, barruan daramagun altxorrik garrantzitsuena delako eta gurekin doalako, azken arnasa ematen dugun arte. Altxor horretaz baliatuz, gure ontzia eraman dezakegu, bakoitzak berea, kai onera, betidaniko bidaira. Esan dudun bezala, ohetik jaiki eta berandu izan arren, azkar ibiltzen kaltegarri dudalako, lasai garbitu dut bizi honetan dudun ontzia, gero zozter almortzatu, hau da, erregai batzuk gosaldun ondoren, kalera eraman dut ni egiten nauen guztia.

Sandik, esan nahi dut, kaleko taberna batetik eta adiskide batzukin egon ondoren, lokalera abiatu naiz eta hantxe, baterian jarri eta jo ta sun urtu arte, sauna batean banengo bezala ibili naiz, gorpua erretzen, bizitza zati bat gustora jaten, jainkoak egiten duen moduan bere seme-alabekin. Horixe delako bizitza, norberak bere gizakia jatea, jakintza gainditzea, baina gustora. Gata edo hola, batek berak bakarrik erabaki dezake eta erabakiak hartzeko burujabetasuna duenak bere ontziaren jabe dela esan dezakegu, izan naiteke.

Jose Ramon

Laster beteko dira 30 urte, 1967ko urriaren 9an, Ernesto Guevara de la Serna "Che", erahil zutela Bolibiako mendietan, CIAk eta ejerzito bolibiarren artean burututako ekintza batean.

CIAren eta bolibiar ejerzitoaren arteko elkarlan horren zergaitia erraza da ulertzeko: "Che"ren ideiek eta askatasun nahiak, munduko herri txiro, zapaldu eta nortasungabeek berehala bereganatzen zuten eta batez ere Hego Amerikan, EEBBen handinahia zuzenki jasaten zutenek. Estatu Batuek (amerikanoak) ezin zion utzi errebolitari idealista, anti-

inperialista eta gizarte berdintasun baten alde zegoenari berearekin irutzen, honek mundu osoan zehar hedatzen zihon sistema politiko liberal honen aldaketa suposatzen baitzuen.

Beti bezala; ez barkatu!, ia beti bezala hor baitaude oraindik Bietnam eta Kuba, berearekin irten ziren eta "Che" hiltzea lortu, baina ez zuten kontuan eduki ekintza horrek hegoak eman zizkiola bere ideiei eta min gehiago egiten ziela hila egonik; gaur egun, oraindik, bizirik dago herri askotan, gizarte justizia benetako bat lortzeko

Itxaropena; askok dugu erreboltari eta sutu horren ideiak eta sentipenak buruko txokoren batean eta noizbehinka edo sarritan lotsatzen gara gure inguruko gauza, gizaki eta ingurugiroari egiten diegunaz; munduak daraman norabide iluna aldatu beharra dago, utopia ala ez landu beharra dago aldaketa.

Gaur egun "Che"ren irudia larregi manipulatu da, ados egongo nintzateke bere irudia eta ideiak batera agertuko balira baina ideiak ez zaizkie komeni; komeni da giltzariak, kamisetak, posterrak, e.a. luze bat saltzea eta dirua egitea, jende gaztearengan duen arrakasta edo harrera ona ikusiz; ez dut uste azaldu beharrik dagoenik pertsonai hau zergatik zen ezaguna eta zeri aurre egiten zion. Baina horren plurala izanik gure gizarte hau, zergatik diote beldurra bere ideiak zabaltzeari egiazko dokumental eta erreportai batzuen bitartez? Badakite, bankari eta militarrek, hori horrela izanik jendea politika liberal basati hau eragiten dituen kaka pilataz ohartuko litzatekeela, eta zer esan edozein motatako zapalkuntza jasaten duten herriek, gu bizi garen Euskal Herria barne; ez ahaztu gu ere urte larregitik hona espainolak garela inposizio batzueri esker (tankeek ziurtatzen dute gure espainolotasuna).

Che"ren izena jende orok du entzuna, gizon, emakume, gazte, zahar, ezkeriar nahiz eskuindarrek, batzuk giltzarian daramate, beste batzuk, ni barne, argazki batean; baina bere pentsakera eta ekintzak bideratzen edota ahalegintzen gara gaur egunera birmoldatzen?. Ez doa bat bere irudia erabili edo txokoren batean eduki eta ez

egin ezer gizarteak eta ingurugiroak (animaliak barne) jasaten ari garen triskantzak eta oinarriko balore galtzeen aurrean.

Gizon hau sistema kapitalista liberal honen aurka zegoen, horregatik erahil zuten; bere helburua pertsonak, inguruak, kulturak eta denak bat eginez sortzen duten herrien nahiak lortzea zen, ezin zapalkuntza edo inposaketa baten aurrean ixilik eta geldirik egon; lehenbizi zapalkuntza horren zergaitia eta norik egiten duen aztertu eta gero behar dena egin, baina lehendabizi egoera aztertu eta gero egoera hortatik sortzen diren arazoak konpontzen ahalegindu.

Badakigu, azken mende honetan norik nahi duen mundu osoko lehentasuna eta boterea edukitzea; norik bultzatzen dituen herri txiro eta aberastuen arteko desberdintasunak edo norik nahasten dituen herrialdeak (Angola, Bietnam, Kuba, Rusia, e.a.) gero beraien arteko liskarrak zuzentzearen aitzakipean, soldadu buru-urdiak bidali giza laguntza bezala (Noiztik soldadu bat gizatasunaren seinale? Gudurik ez litzateke egongo soldadurik ez balego) eta sistema berri bat eraiki kontsumo eta diruan oinarriturik. (hurrengo zenbakian jarraituko du).

Asier Heriz

## LANTOKIAK, HILOBI BILAKATU

Uztailaren hasieran hemezortzi pertsona hil eta hamar zauritu ziren Valentziako portuan gertatu zen lan istripuan. Hauetatik bi hildako eta zauritutako bat euskaldunak ziren.

Lan istripuak maiz agertzen dira egunkarietako orrialdeetan, honen kaltegarriak ez badira ere. Eta txarrena da istripu hauek zerbait natural, berezko izango balira tratatzen dituztela.

Iaz, egunero 140 lan istripu gertatu ziren Hego Euskal Herrian. Urtean zehar guztira 129 langile hil ziren. Hilero, batzabesteko, 11 langilek galdu zuten bizia. Estatuan 1.300 izan ziren hildakoak.

Baina ez da kasualitatea istripu eta heriotzek gora egitea. Balantze odoltsu horren atzean, lan baldintza, segurtasun falta, langabeziak sortzen dituen presioak eta nagusitu diren behin behineko lan motak azaltzen dira.

Lantokiak, egunetik egunera, hilobi bilakatzen ari dira. Ezin da tragedia hauek pasatzen utzi. Erruak ez daude zeruan. Empresarien eta Madril eta Gasteizko Gobernuen eskuetan dago. Hauei eskatu behar zaizkie erantzunkizunak.

Valentzian hildakoak errugabeak ziren, beste asko bezala, baina zoritxarrez "Valentziako espiriturik" dagoenik ez dugu inongo berrietan irakurri.

SORALUZeko LAB

Soraluzeko AEK  
Euskaltegia

Zatoa Euskara ikastera lagunartean!

Tfnoa: 75 14 34

*Pub Intxixu*

Tel. 752036

Etxaburueta, 8 - SORALUZE

**Iturgintza ITUR**

*Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak*

Santa Ana 20

SORALUZE

Tlf: 751241

**Benito**

**Anaiak**

**Altzariak**

Santa Ana 26

SORALUZE

Tfnoa: 752047

## Saltzen, saltzen...

Ez dira ugariak izango egunkari saltzaile gurdixodunak dituzten herriak. Hemen Soraluze denontzat ezaguna den Emilita dugu goizean goiz karrotxoarekin kalez kale ikus dezakeguna. Nondik datorkion "afizio" berezi hau jakiteko asmoz egin diogu elkarrizketa hau.



- Noiz hasi zinen lan hau egiten?

- Ni hamabi urtekin hasi nintzen periodikuak saltzen eta orain 68 urtekin ere horretan nabil.

Bost urtetan kanpoan ibili nintzen baina horixe da nire ofizio printzipala

- Eta egunkariak gurdixoarekin saltzea, nondik datorkizu?

- 60. hamarkadan, aitak pentsatu zuen karrotxo bat egitea etxean zeuzkan bizikletekin, bera beti ziklistia izan da eta.

Bi gurpil bizikletetan hartu zituen eta gero beste txiki bat etxeko mutikoarena eta Kooperatiban hartutako kaja batzuekin egin zuen karrotxo hori.

Hura deskantsu haundia izan zen bertan pisua eramaten genuelako.

- Eta oraindik karrotxo hura daukazue?

- Ez, orain ez, hura erreserba moduan edukitzen genuen. Gero aitak Zumarragatik ekarritako fleje batzuekin beste bat egin zuen, seguruagoa, gaur egun daukaguna.

- Ordutegi bera izan duzu beti?


- Ez, lehen periodikua beti trenean etortzen zen, 9ak inguruan. Gero hasi zen periodikua goizago etortzen, 6'30ak inguruan eta gaur egun jendea lanera gero eta urrinago doanez 5'30etarako kalean gaude periodikua saltzen, bestela lanetik bueltatzen direnerako kioskoa itxita dagoenez ezer gabe gelditzen dira.

### HORTZ KLINIKA

IONE BEITIA ARRIOLA  
Odontologoa Kol. Zb. 523  
JAVIER ALONSO CELAYETA  
Mediku Estomatologoa Kol. Zb. 434

Atxuri, 1 - Igoa Esk.  
Tlnoa: 943 - 75 16 13 20590 Soraluze

### OKINDEGIA - OPILDEGIA



## FOTERO

San Francisco, 4 - ELGOIBAR • ☎ 74 07 35  
Rabal, 15 - SORALUZE • ☎ 75 22 81  
Bidebarrieta, 24 - EIBAR • ☎ 70 04 07

**- Zure ordutegiarekin gau-pasa egiten dutenak ere ikusiko dituzu, ezta?**

- Bai, gainera gazteekin norbera ere gaztetu egiten da. Demasekoak egiten ditugu gero! Bertatik pasa eta esaten dizute: "¡Como Emilita no hay ninguna!". Dantzan eta dena egiten dugu, badakizu ordu horretan denak umore onez egoten dira eta.

**- Egunkari saltzaile asko ezagutu dituzu Plaentxian?**

- Bai. Nire anaiak eta nire ahizpak, gaztetxoak zirela, eskolara joan baino lehen saltzen zuten "El Liberal" "La Constancia" "El Dia" eta ez dakit nik zertzuk, nik haiek ez ditut ezagutu.

Gero gerra denboran, uste dut piskatean lagata egon zirela, desagertu egin ziren. Bakarrik zegoen lehen deitzen zena "La Voz De Guipuzcoa" eta gero hasi zen "La Voz De España"; beti esaten genuen lejiatan sartu zutela, lehen "La Voz De Gipuzkoa" gorrixa zen, gainera Azpeiti eta Azkoitian sermoietan ez erosteko esaten zuten deabruaren ahotsa zela eta. Lehen saltzaile asko zegoen, gu ez ginen bakarrak, "La Voz De Gipuzkoa" Visitacionek saltzen zuen, Patrizianekoan "ABC" "Criterio" "Jerobi" saltzen zituzten, Errazuenekoan "La Gaceta" eta Porteroenekoan beste batzuk. Orduan periodikuak kotxeetan etortzen ziren goizean goiz eta mutikoek, gaztetxoek eskolara joan baino lehen errepartua euren bezeroartean egiten zuten. Gero denek laga zuten eta gurasoak

periodikuak saltzen hasi ziren.

**- Zure lanaren alde onak eta txarrak.**

- Alde ona, jende guztiarekin tratatzen duzula. Lehen gainera etxerik etxe eramaten genituen periodikuak eta umeren bat jaiotzen zenean ere, segiduan kopatxo bat, pastatxoak edo errellenuak hartzen genituen, beti hartzen bizi izan gara herri guztiarekin, denekin ondo, umeen izenak ere, denak ondo jakiten nituen. Gero kioskoa ipini dugunean hori galdu egin da baina lehen bizi izaten genituen etxeetako gorabehera guztiak. Eta alde txarra da lapurretan egiten digutela, lehen gehiago gainera. Guri egunkariak Kontzuplean lagatzen dizkigute eta batzuk ordaindu gabe hartzen dituzte gero deskuidatzen bazara lurrera botatzeko eta beste batzuk dirua laga eta atzetik datorrenak diru hori hartu egiten du.

**- Bukatzeko, baduzu anekdotarik?**

- Jaietan beti eskaintzen didate tabernetan kafea, txokolatea, pastelxoren bat... eta ezetzikan ezin esan han egoten diren gazte batzuei. Batzuetan zerbeza eskaini eta hartu egin behar izaten dut, badakizu....



**ITXAROPENA**

**TABERNA**

**SORALUZE**

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

**BATZOKI**

**TABERNA**

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

**SORALUZE**

## TXOKO KAFETEGIA

**Irailak 6an Soraluzen kafetegi berri bat inauguratu zenez, bertara hurbildu eta galdera sorta bat bideratu genien bertako tabernariei.**

1. Zelan erabaki duzue Soraluzen kafetegi bat zabaltzea?

Beno, aspalditik izan dugu buruan leku egokia zela eta tabernari munduan gaudenez, ilusioz hartu genuen hasieratik. Nahiz eta orain dela 8 urte Zaldibarrera bizi izatera joan, betidanik izan dugu bueltatzeko asmoa.

2-Zein jende moeta erakarri nahi duzue zeuen kafetegira? Zein ordutegi mantenduko duzue astean zehar? Eta asteburuetan?

Politena, tabernan adin eta mota guztietako jendea sartzera litzateke, baina ez da hain erraza. Gainera tabernaren egituraketak asko laguntzen duela uste dugu.

Oraindik ez dakigu zihur, baina oraingo astean zehar goizeko 8etan zabaltzen dugu (osteguna 7etan). Asteburuetan berriz, 11etan zabaltzeko asmoa dugu.

3. Denok dakigun bezala; lan handia dakar taberna edota kafetegi bat martxan jartzeak. Baina norma edo lege batzuk bete behar dira. Aipa al dezakezu hauei buruz zerbait? Alde batetik, "Gizarte-estamentua" deritzona dago,

lokalaren ezaugarri fisikoak baldintzatzen dituena

(insonorazioa...), Osasun sailaren baldintzak (derrigorrezko 2 komun...). Gainontzeko normak bakoitzak ipintzen dituenak dira, esperientziak ezartzen dituenak.

4. Inagurazioa Irailaren 6an eman zen; zer moduzko harrera izan zenuten Plaentxitarron gain?

Jo, pasada bat; oso ona. Itxita denboraldi bat egon denez, jende asko hurbildu zen aldaketa ikustera.

5.: Herri erdian 17 taberna egonik; beste bat ireki duzue; ez dira gehitxo Soraluze moduko herri txiki batentzat?

Oraindik ezin dut erantzun, ez baitakit eskaria zenbatekoa den, mugimendua ere gutxi ezagutzen dut. Esan dezakedana da, jendearen ohiturak aldatzen doazela eta egokitzen joan behar dela poliki-poliki.

6. Jendea erakartzeko ekimenak burutzea pentsatzen duzue?

Terraza iadanik martxan dago eta oraindik ezer esateko goiz den arren, ez ditugu baztertzen bestelako ekimenak (edariren baten jai...).

7. Kafetegiaz gain, menu edo plater gonbinatuak eskainiko ahal dituzue?

Oraindik ez dakigu, baina jendearen ohitura eta gustuak jakinda, lokala egokitu ahal izango litzateke.

8.: "TXOKO" izena mantentzea erabaki duzue. Zergatik?

Izena aspaldikoa delako, eta taberna eta lekuari atsekita dagoelako. Gainera jendearen iritzia izena mantentzearen aldekoa zen gehienbat.

9.: Zein da Plaentxitarrok gehien eskatzen dugun edaria?

Gehien ardoa, baina zerbeza eta kafea ere edaten da.

10. Pil-Pilean aldizkariaren eskutik ongi joan dakizuen opa dizuegu.

Zerbait gehitzeko....

Eskerrik asko zuei etortzeagatik, eta gustora gordeko genioke aldizkariari "txoko" bat.

### TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!



Kalebarren 22 behea  
tlnoa: 75-17-89



## LURRIKADAK SORALUZEN !!!

Abuztuak 30eko gaua misteriotsua izan zen Soraluze herriarentzat; Elgoibarren ospatzen ari ziren Bartolome Deunaren omenezko jalez gain; Azpeitia eta Azkoitia bitartean erdigunea izan zuten bi lurrikadak eragin baitzuten.

Goizeko 6ak pasatxo ziren lehenengo lurrikada nabaritu zenean; bere intentsitatea 3,6koa izan zen Richter-en eskala kontutan hartuz.

Hala ere, lurra bere ohiko egonkortasunera iritsi zedin; bigarren seismo baten

mezua jaso genuen ordu laurdenera, berau 3,5ko intentsitateaz.

Hainbat iritzi ezberdin jaso zitezkeen ez-ohiko gertakizun honen gain.

Batzuren ustez, iratzargailuari aurre hartu zion fenomeno geologiko honek, ametsen mundutik errealtatera garraiatzen zituen.

Beste batzuk aldiz, ez ziren lur mugimenduaz ohartu, amets sakonen seinale!

Elgoibar eta Osintxuko gau-paseroak berriz; ez dira ados jartzen lur mugimenduak lurrikadak edo alkoholak eragindakook ote diren.

Euskadi ez da lurrikaden gunea; nahiz eta azken 150 urteotan hainbat mugimendu jasan izan.



Hauetariko 20ren bat Gipuzkoa lurraldean eman dira; hala ere, euren indarrak ez ditu 3,8 graduak gainditu inoiz.

Bestalde, Gipuzkoan eman diren edota emango diren lurrikaden garrantzia oso baxua da, Mexiko eta Estatu Batuetako hainbat lurraldetan ematen direnekin gonbaratuz.

Gure lurraldean lurrikada baten ondorioz, lanparak mugitu edo koadroak erori daitezke. Batzuren ustez,

efektu hauek harriz beteriko kamioi batek etxeetan duen eraginaz gonbaratu daitezke.

Ondorioz, Euskadin lurrikadaren bat suertatzen bada etorkizunean garrantzi gabekotzat jo daiteke.

**ARRANO-TABERNA**  
SORALUZE




MARTXA eta BORROKA

**Etxabe harategia**

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE  
Tfnoa: 752375

## Sentidu zinuán lurrikara??




3. maila Bko  
ikasleak

- Nik sentidu neban baina ez notsan kasu askorik ein, lotan jarraitxu neban.
- Ni beldurtu ein nitzan.
- Ni "sopa" neuan!
- Nere aitzak bi sentidu zitxuan.
- Nire amamak ohia mobitzen sentidu eban.
- Danielan muñekia lurrera jausi zan.



KONTXI LOIDI  
40 urte Etxekoandrea

Ni ez nitzan enterau ezekin be, hurrengo goizian gizonak esan zoztan zerbait sentidu zebala eta alabiak bebai, baina segundakua. Ikara baten modokua, zerbait mobitzen zala.




Berdaitz Ayastui  
16 urte Ikaslea

Ez neban ezer sentidu, bastante haundixa izan zala entzun neban. Nik lasai ein neban lo.



Igone Arluziaga  
61 urte


Ez neban sentidu, baina horretaz asko entzun dot, gauzak mobidu eitxen ziala, etxiak bebai... Nola guk ez doun sentidu ezer ba ni lasai neuen. Beste bat egon ez-kero bildurra galanta! esan bihako doskue ze ein halako batian.



Jose Arrizabalaga  
86 urte

Bai, etxia ikaran sentidu neban, kotxeren batek etxia jo ote zeban pentsau neban. Nere ohia ta gauzak mobidu ein zian.

IAGOBA ZABALA



Zenbaki honetan, Iagoa Zabalarekin hitzegiteko aukera izan dugu. Berak lau urte inguru daramatza

S.K.B. ean (Soraluzeko Kirol Bazkuna) idazkari lanetan. Elkarrizketa honen bidez, idazkari baten funtzioak zeintzuk diren ezagutuko ditugu eta honetaz gain, S.K.B. ren barne funtzionamendua nolakoa den ere ezagutuko dugu.

1. Zein da idazkari batek horrelako elkarte

batean bete behar duen lana?

Ni diruaz arduratzen naiz batez ere. Banketxeetara

joan, erreziboak kobratu, etab. Gainera idazkariak bazkideen zerrenda eramaten du.

2. Zenbat urte daramatzazu karguan?. Idazkaria izan aurretik, zein zen zure harremana S.K.B. rekin?

Lau urte karguan eraman arren, betidanik

izan dut harremana S.K.B. rekin. Lehen nire

lana, laguntzailearena zen eta antolatzen ziren ia ekintza guztietan parte hartzen nuen nire laguntza emanez.

3. Pozik al zaude eginkizun honekin?. Noiz arte jarraitzeko asmoa daukazu?

Orokorrean pozik nago, nahiz eta momentu txarretan poztu hau lagatzeko gogoia izan. Hala ere, urte askotan

**ATXOLIN TABERNA**  
Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 75 21 31

Soraluze

jarraitzeko asmoa daukat.

*4.Zenbat urte darama S.K.B.ak?.Noiz izan da bazkide gehien izan duen urtea?*

S.K.B.a sortu zenetik 51 urte igaro dira.Bigarren galderari erantzuna ematea zaila da;lehen,gure egoitza apaizaren etxeko lokal batean genuen eta sute baten ondorioz,han geneukan informazio guztia erre egin zen.

*5.Idazkariatz gain,zeintzuk dira beste eginkizunak betetzen dituztenak?*

Presidente,Aranzabal da;presidente ordea Alejandro eta gero sail bakoitzak bere ordezkariak dauzka.Horrela,mendi taldeko ordezkariak Jon,Iñaki,Zigor eta lakes dira,pilota taldeko ordezkariak Gustavo eta Agustin,eta txirringulari sailekoak Pedro Deza eta Oregi.

*6.Zeintzuk dira talde bakoitzaren eginkizunik adierazgarrienak?*

Mendi taldeak,bere ekintzen artean,mendi

irteerak,mendi eta iturri garbiketak,eski irteerak eta finalista eguna egiten ditu.Pilotari dagokionez,aipatu behar da,urte osoan umeei entrenatzeko aukera ematen dietela eta pilota partidu asko antolatzen dituztela.Azkenik,txirringulari taldea;hauen ekintzarik aipagarrienak igandero antolatzen dituzten irteerak,duathloia eta mendiko bizikletaz egiten duten zeharbidea dira.

Bestalde, esan beharra dago badagoela beste talde bat,nahiz eta momentu honetan talde bezala ez funtzionatu;talde honetaz (atletismoa), Luke arduratu izan da beti.

*7.Urtean zehar antolatzen dituzuen ekintzak nahikoak direla uste al duzu Soraluze bezalako herri batentzat?*

Nire ustez,gauza gehiago egin beharko lirateke,baina honetarako jendeak parte haudioago izan beharko luke.

*8.Zenbat bazkide du S.K.B.ak?.Konforme*

*zaude edo zure ustez zein izango zen pozik egoteko moduko zenbaki bat?*

150 bazkide ditu,baina ez nago batere pozik.Nire ustez herri guztia edo ia guztia izan beharko litzateke bazkide,herriko guztientzat egiten baitira ekintzak.

*9.Zenbat ordaindu behar du bazkide bakoitzak urtero?.Zein uste duzu dela hain bazkide gutxi egotearen arrazoi nagusia?*

Hamalau urtetik beherakoek 600 pza eta hortik gorakoek 1.200.Bazkide gutxi egotearen arrazoia ez dakit zein den baina dakidana da hain gutxi ordaindu eta gero,bazkide gehiago egon beharko litzatekeela.Galdera hau aprobetxatu nahi dut jendea bazkide egin dadin animatzeko.

*10.Eman arrazoi bat pertsona bat S.B.K.ko bazkide egiteko.*

Jendea bazkide egiten ez bada,S.K.B.a desagertzeko arrisku handia dago.

11. Non dago zuen lokala?. Pozik zaudete ala beste lokal baten beharra ikusten duzue?

Gure lokala, Zubikua bideo-dendaren gainean dago, Errebal kalean hain zuzen ere. Lokal honetan gustura gaude, baina beste lokal baten beharra ikusten dugu, oraingoa oso zaharra baita. Lokal hau herri-erdian izatea funtsezkoa izango litzateke, bai jendeak lokala hurbil izateko eta bai ekintzak antolatzen direnean behar diren gauzak errestasunez hartu ahal izateko.

12. Nolakoak dira beste herri batzuekin daukazuen harremanak?. Zenbatero elkartzen zarete bilerak egiteko? Harremanak badaude, baina ez

S.K.B. bezala; sail bakoitzak bere harremanak ditu. Bilerak 15ean behin egiten ditugu.

13. Jendea kontziente da S.K.B.a daukagula?. Jendeak

egunkari eta kartelen bidez.

14. S.K.B.a eta herriaren arteko harremana estua dela esan daiteke?. Jendeak baloratzen al du S.K.B. ren lana?



badauka informaziorik S.K.B.ri buruz?

Lehenengo galderari erreferentzia eginez, pentsatu nahi dut baietz, nahiz eta nire zalantzak izan. Gainera uste dut jendeak badaukala nahiko informazio, egiten diren ekintzak ongi iragartzen baititugu

S.K.B.a herritarrez osatua egon arren, batzuk bakarrik mantentzen dute erlazio estua elkarte honekin. Nik uste dut jendeak baloratzen duela gure lana, baina bakarrik gure zerbitzuetaz baliatzen

direnak, hau da, beti izaten dira berdinak gurekin harremanak dituztenak.

**Bazkide egin**


**zaitez !!!**



**ITSASTAR**  
Arraindegia

Santa Ana kalea, 13  
Denda 752149  
Etxea 75 16 27

## KIROLARIAREN TXOKOA



(Maialen Galarraga:  
futbolaria)

### 1. Esaldi bat.

Aupa gazteak, eta gora  
SORALUZE, gora  
EUSKAL HERRIA eta  
baita EUSKARA ere.

### 2. Soralezetarrentzat mezu bat.

Soraluzeko giro jatorra  
mantentzea gazteen  
artean.

### 3. Futbola ez den kirol bat.

Mendia.

### 4. Amets bat.

Selekzioan jokatzea.

### 5. Animalia bat.

Txakurra.

### 6. Gizon batek behar du izan...

Jatorra.

### 7. Lotsatzeko motibo bat.

Ni, besteen aurrean  
gaizki gelditzea.

### 8. Soralezeko toki bat. Estazioa.

### 9. Zer falta zaio Soralezeri?.

Soraluzeko neskek  
kirol gehiago egitea.

### 10. Eta zuri?.

Etorkizun ona izatea.

### 11. Gustuko janari bat.

Txuletia.

### 12. Musika talde bat.

Benito Lertxundi.

### 13. Telebistako programa bat.

"El día después"  
saioa.

### 14. Irakurri duzun azken liburua.

Ihesa.

### 15. Edari bat.

Zerbezia.

### 16. Bizitzeko Soraluze ala hiriburu bat?.

Soraluze.

### 17. Oporretarako toki bat.

Pirineoak.

### 18. Negar egin duzun azken aldia.

Amonaren hiletan.

### 19. Munduarentzat nahi bat.

Pake pixka bat.

### 20. Anekdotak bat.

Partidu batera beste  
taldeak zazpi jokalaria  
besterik ez zituen  
eraman.

## FUTBITO TXAPELKETA



Azken urte  
hauetan, urtero egin den  
bezala, aurten ere futbito  
txapelketa ospatu da. 9  
taldek hartu dute parte  
aurtengo txapelketan eta  
arazoren bat edo beste  
izan den arren, txapelketa  
polita jokatu da. Jaietan  
Santiago egunez  
arratsaldean jokatu zen  
finalean "Los de  
Siempre" taldea suertatu  
zen garaile "Malas  
Hiervas" taldearen aurka.

*Jantzi kirola euskaraz !!!*



## PALENTZIAKO MENDIETARA BIDAIA

Aurten "Sociedad Deportiva" k gehienetan Pirineoetara antolatu izan duen bi egunetarako bidaia, Palentziara antolatu zuen. 29 lagunek eman zuten izena autobuserako



eta autobus bat osatu ahal izan zen. Uztailaren 5ean goizaldeko 3.30 etan atera ziren Palentziaruntz; aukeratutako mendira igotzeko eguzkia atera aurretiko freskura aprobetxatzeko asmoz. **Espigüete** mendia igo eta bertan egin zuten bazkari legea. Arratsaldeko laurak alderako autobusera jeitsi eta **Camporedondo** herriko aterpean utzi zituzten motxilak eta gainontzeko trasteak. Herrian buelta bat eman eta futbol zelaian partidu labur baina gogorra jokatu ondoren, gure jokalaria afaldu eta kafe bat hartzera atera

ziren gaueko hamaikak aldera oheratu ziren arte. Goizean goiz gosaldu, autobusa hartu eta **Curavacas** mendiaren magalera joan ziren. Mendia igo eta jeitsi ondoren autobusean

sartu eta bueltarako bidea egin zuten, tartean gainera "Juantxoren showa" izeneko lehen mailako aktuazioaz gozatu ahal izan zuten, eta gainera dohainik. Beti bezala umore ona izan zen nagusi bidaia guztian zehar.

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

**LAUDIN, S. A. L.**

Industrialdea, z/g  
138 Postakutxa  
Tf.: (943) 75 21 50  
Faxa.: (943) 75 21 18

**SORALUZE**

## Ze iritzi dauke Plaentxiarrek jaixen inguruan??

### **San Andres:**

Giro eder eta jatorra izan da nagusi aurtengo San Andreseko jaixetan, lehenagoko erromerixen jarraipena da... Uztailan Oskorri taldeak izan zuen arrakasta ikusita auzoko jaixek etorkizun polita izango dutela dirudi

Egoitz Unamuno  
18 urte

### **Txurrukako jaixak::**

Ni neu urtero urtero joaten naiz, eta oso gustora egoten naiz, meza entzun, salda pixkat hartu, bertsolariak entzun... Gainera aurten ospakizun berezia egon da, 40 urte pasau dia ia Txurrukako elizia inaugurau zebenetik.

Juana Oregi  
76 urte

### **Ezoziko jaiak:**

Auzo bateko jaixak izanik nahiko bereziak dira, ondo daude. Ez dago jende asko, baina auzokoek giro ona egon dadin saiatzen dira.

Ainhoa Elizburu  
23 urte

### **Andra Maixak-San Roke Txiki:**

Andra Maixetako egunik onena nere ustez San Roke Txiki eguna da, gainontzeko egunetan jende gutxi dago. Gauza gehiago egin beharko lirateke.

Juan Luis Guenetxea  
32 urte

### **San Martzialeko jaixak:**

Oso ondo egon dira. Galduta zeudenez iaz indarra ematea pentsatu genuen. Aurten

aurrekontu handiagorekin jokatu dugu, berezitasun gisa aipagarriak izan dira: afari herrikoa: 50 lagunek parte hartu genuen eta postrea baserriko produktuak izan ziren.

Alaitz eta Mainerrekin erromerixia: Jende asko hurbildu zen eguraldi onari esker eta oso giro alaia eta polita sortu zen.

Ainhoa Lete  
23 urte


### **Santiago Santanak:**

Aurtengo jaixak beste urteetakoan antzerakoak izan dira, baina oso onak. Urtero musika talde desberdinak etortzen direnez ba beti egoten da zerbait berezia. Aurten aipatzekoa izan da tanborradaren arrakasta. Igor Garitano 23 urte

### **Irureko jaixak:**


Jai hauetako data beharbada ez da egokiena, baina hemen gelditzen garenak oso ondo pasatzen dugu.

Auzotarra





# Jaietako hainbat argazki.



Erretegi  
Jaietxea  
**ESOZIA**

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

## Ixiar Oreja: "Ikusi ditugu zenbait ipurdi kontzerturen baten."

Soraluzeko Santiago eta Santana Jaixetan ikusi eta dastatzeko aukera izan genuen 'Maixa eta Ixiar' taldeko Ixiar Orejarekin egoteko aukera izan genuen. Orain dela 23 urte Andoainen jaiotako musikari eta telebista aurkezle honek Pil Pileantzat eta Soraluzeko herriarentzat ere izan zuen astia, gure galdera nekagarrirei (???) erantzunez.

Noiz hasi zinen musika munduan?

Ikasketak eta horrela 7 urterekin, edozein ume bezala, eta 13 urterekin trikitixa jotzen nire ahizparekin, eta azkenean 14 urterekin Maixarekin jotzen hasi nintzen.

Noiz elkartu zitzaizuen Garbiñe?

Garbiñe 93. urtean elkartu zen gurekin, lehendabiziko diska atera eta gero.

Zuen izen artistikoa 'Maixa eta Ixiar' da, eta zergatik ez da Garbiñe agertzen?

Ezen, duela 8 urte hasi ginenean, Maixa eta biok bakarrik hasi ginan, eta duela 4 urte Garbiñe gurekin hasi zenean izena aldatzen ez hastearren. Besterik gabe.

Horrenbesterako arrakasta espero al zenuten azken diska honekin?

Bueno, ezaguna egin da, baina beno, besterik gabe. Ez... gustora gaude.

Irratiak eragin al du diska honen arrakastan?

Bai, pila bat. Irratietan zure abestia entzutea oso interesgarria izaten da beti.

Eta hurrengoa, noizko?

Hurrengoa? Ez dakigu, oraindik azken honen etekinak ateratzen ari gara. Jendearen aurrean jotzen hasi besterik ez gara egin. Gero gerokoak...

Zertan uste duzu datzala Euskaraokearen arrakasta?

Nik uste dut umeei bapatean musikari bilakatzea gustatzen zaielako eta jendearen aurrean beren gaitasunak azaltzea. Zer sentitzen da umeak zeuon abestiak kantatzen ikustean?

Hasieran lotsa piskat sentiarazten zidan, baina gero ohitu egiten zara.

Azkenean beste edozein abesti bezala.

Euskaraokea jende helduarekin egingo balitz izango al luke orain duen tiroia?

Nere aldetik ez zait iruditzen hain polita izango zenik. Umeek badute puntu bat gehiago helduek ez dutena, beraien espontaneidade horrekin, jolas bezala hartzen dute eta ongi pasatzen saiatzen dira.



## Bexamela ala pastela?

Biak. Biak ditut gustoko.

**Zergatik izen hori, 'Bexamela eta pastela'?**

Abesti horretan azaltzen diren gauza guztiak oso gustoko ditugulako. Bexamela ikaragarri gustatzen zaigu eta pastela ere bai.

**Piroporik jasotzen al duzu?**

Ke ba...

**Irla desertu batera eramango zenituzkeen hiru gauza edo pertsona?**

Musika sor dezakeen zerbait, pertsona maite bat eta desertua baldin bada zuhaitz bat itzalean egoteko.

**Zein da zure gizon ideala?**

Ez dakit existitzen den gizon idealik, eh! (barreak) Ba... frankoa eta bera den bezalakoa izatea eta behintzat ez dadila harroa izan, eta azkenik maitakorra izan dadila.

**ETBtik Hollywood-era?**

Bai zera! Ke ba, ke ba.

**Gertatu zaizuen anekdota**

**barregarririk?**

Zenbait ipurdi eta horrela ikusi ditugu, streap-tease-ren bat ere bai kontzerturen baten.

**Zuretzat zer da Soraluze, ezagutzen al zenuen?**

Iaz etorri ginen jotzera eta San Andresen ere egonak gara. Etxetik nahiko urrun geratu arren ezagutzen genuen bai.

**Nola ez ezagutu horren herri xarmangarria?**

## ESAERAK.

## ZAHARRAK ETA BERRIAK.

- Behin engainatzen banauzu, zeurea da errua.

- Bitan engainatzen banauzu, errua neurea da.

- Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola.

- Munduan hiru gauza galtzen dira alperrik:

\* Pobrearen arrazoia

\* Mendiko egur igarra eta alperraren indarra.

- Jainkoa bat eta bera nahikoa.

- Jainkoa gauza guztien gainekoa.

- On egin deizuela janak eta kalterik ez edanak.

- Ondo eginez gero loa, osasuna ondo doa.

- Ibiltari gauean, logale goizean.

- Gaur egin dezakezuna biharko ez utzi.

- Do, re, mi, hanka oker hori, fa, sol, la zuzendu zaiola.

- Eguzki bera on ala gaiztoentzat.

- Ilargi eta laino sorginentzat giro.

- Zuri inork egitea nahi ez duzuna, ez egin inori.

- Asko balio du indarrak, gehiago buru azkarrak.

- Denbora badoa eta gu harekin.

- Lanik errezena agintzea.

- Neke gabarik ez da bizitzerik.

- Askoren mina tontoen atsegina.

- Tontua izateko ez da ikastetxe batera joan behar.

- Egiak ez ditu bi bide.

## OSKORRI

Urtero bezala , joan zen Uztailan, San Andres auzoko jaiak ospatu ziren.laz, errebelazio taldearekin ausartu baziren, hau da Gozategirekin, aurten, erromeria ez da gutxiagorako izan.

Uztailaren 12an auzokoei esker, OSKORRI taldea entzuteko aukera aparta izan dugu. Han, Pil-pileanekook Natxo de Feliperekin hitzegin genuen eta honako bitxikeria hauek kontatu zizkigun.

-Hogeitabost urte musikaren munduan eman eta gero, nola lortzen da zuen emanaldietan erakusten duzuen indarra eta jendearekin koneksio hori mantentzea?

Beno, guk ere ez dakigu. Agian gure hasierako bidetik jarraitzea izango da sekretua. Betidanik izan dugu argi, abokatua edo mediku izatea baino titiriteroak izatea nahi genuela eta segurasko horregatik disfrutatzen dugu hainbeste gure lanarekin. Gainera, jendearengandik jasotzen dugun bibraziño horrek lana errezten du. Horrela izango ez balitz berehala erretiratuko ginake.

-Hasi zinatenetik gaur egun arte nola aldatu da, zuen ustez jendearen harrera euskal musikarekiko?

Dena aldatu da zorionez. Gure hasierako egunak, Frankoren egunak ziren. Orduan, kantaldietan eskatzen zitzaion kantariari paper mesianiko bat egitea eta , bide batez, emanaldiak manifestazio edo mitin antzerako bat bihurtzen ziren. Gaur egun, zorionez,kontzertuetara datorren jendeak badaki zer nahi duen , gehien bat, orain erreibindikatzeke beste modu batzuk dagozelako . Horrekin ez dut esaten euskal kantariok orain ere ez daukagula gure tarte erreibindikatiboa gure kantuetan .

-Betidanik izan duzue argi euskeraz abestu nahi zenutela edo egon zen duda momenturen baten ?

Ez,ez . Ez zen dudarik izan. Nahiz eta euskaldun berriak izan, beti izan dugu erabaki nahiko militantea euskerarekin.Proiektu hau aurrera eramatea pentsatu genduenetik, modu natural batez euskeraz abestea erabaki genduen. Hasieran esfortzu handia izan zen, baina gero eta gauza naturalagoa bihurtu da gaur egunean eta inoiz ez dugu dudarik izan.



**JATETXEA**  
**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*



-Kukubiltxoren espektakuloa zuen emaldietan sartzearena jende gaztearengana hurbiltzeko asmoz pentsatua izan da?

-Ez orain dela hamar urte pentsatu genduen lehengo aldiz. Gu bezalako taldeek, folk taldeek, eszenaratze nahiko pobrea daukate, orduan pentsatu genduen kukubiltxoren laguntza oso interesgarria zitekeela gure emanaldiei beste proiektio bat emateko. Lehenengo esperientzia ikusiz gero, jarraitu genduen espektakuloekin eta aurrerantzian ere badugu asmua jarraitzeko horrekin. baina inoiz ez da inori konkretuki zuzendua izan.

-Ba al da Oskorri taldea gehien identifikatzen duen abestirik?

keba!! Gure erreperatorioko kantuak oso estilo ezberdinetakoak dira. Badaude batzuk parradarako aproposagoak direnak, gaur jo ditugunak gehien bat, eta aldiz, badira

batzuk hemen joteko adibidez ez datozenak oso ondo baina agian guk gustorago jotzen ditugunak. Nik uste dut musika bakoitza jo edo entzuteko momentu egokiena bilatu behar dela.

-Baina adibidez "Furra furra" ez duzue jotzen kontzertu guztietan, ez da, berezia zuendako?

Ez guretako ez da bestia baino bereziagoa. Askotan jotzen badugu da ia obligazioz, jendeak eskatzen duelako. Azkenean halako kantuak ez dakizu maite edo gorrotatu. Baina esan dudan bezala denak dira berdinak guk egindako abestiak guretako seme alabak izango balira bezala dira eta guraso bati galdetzea zein seme edo alaba maite duen gehien ... gaitza da. Ez dago alderik.

-Zer iruditzen zaizue San Andres moduko auzo batek Oskorri ekartzea Jaixetarako?

Ba dudarik gabe, eskertzekoa da. Oso leku txikietan jo dugu, baina halako eszenario bitxi batean oso berezia izan da. Inportantea da guretzako ikustea hemen, lau baserrien arteko jendeak zer nolako esfortzua egin duen Oskorri bezalako talde handi eta garesti bat (barrez) ekartzeko. Benetan estimatzekoa da.

-Gustatuko litzaizueke zuen antzeko talderen bat sortzea?

Ez, kopiatu ez da egin behar. Guk egin dugu gure bidea modu ezberdin batez, baina hor geratzen da dena. Hasi ginenean sektore batzuk barre egiten zioten folkloreaki esaten beste garai bateko musika zela. Orain hori aldatu da. Guk uste dugu gure poesia, dantza, bertso etabarretan badaudela erreferentzi kultural oso inportanteak eta hori landu eta zaindu egin behar da. Orduan guk egin duguna hori da, geure folkloreak daukan inportantzia kulturak, poetiko eta historiko hori kontutan izanda saiatu gara beste dimentsio bat ematen eta uste dut lortu dugula. Baina ez dut uste eredu garenik kopiatzeko, nahiz eta atzetik datozenak gure lana ezagutzea inportante izan.

-Konta iezaziguzu urte luze hauetan zehar bizi izan duzuen bitxikeriaren bat...

Esate baterako, Europara atera ginen lehenengo aldia oso txokantea izan zen. Guk pentsatzen genuen euskaldunok, edo Euskal Herria oso inportantea zela Frankismoaren kontra egindako borrokagatik. 1978an Alemanian zehar eman genduen lehenbiziko gira handia. Emanaldiak Unibertsitateetan ospatzen ziren, orduan konturatu ginen zer gutxi pintatzen dugun munduaren zereginetan, Unibertsitario alemanak ez baitzekiten Euskal Herria non zegoen ere.

Bakarrik batzuk ezagutzen zuten turismoagatik Donostia edo Biarritzeko zineko festibala. Orduan konturatu ginen guretzako oso inportanteak diren gauzak, kanpoko jendearentzako ez direla ezagunak ere.

Beste bitxikeria izan da ibili garen leku guztietan, nahiz eta hizkuntza arraro eta barbaro batez kantatu jendea harrapatu izan dugula, baita hotz fama daukaten lekuetan ere (barrez).

-Zuen hurrengo proiektua...

Asko (barrez). Baina ezin dugu zuzenean esan. Beno, alde batetik segurasko Urrirako diska berria grabatuko dugu eta gero, neguan, beste bat zuzenean. Azaroan Ameriketara joan beharko dugu Chile, Argentina eta Uruguay bisitatuz. Ordurako, gauzak okertzen ez badira, grabatua egon behar da gure diska berri hori.

-Diska berria kantu berriekin?

Bai, bai, kantu berriak izango dira, baina ez dugu beste informaziōnorik eman behar oraingoz.

-----  
San Andres auzoko jaiak  
Pedro Deza



## SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

Tif: 751646

SORALUZE

## Gaztelupeko Hotsak

1. MALCOLM SCARPA eta ÑACO GOÑIren diska kalean izango da urrirako BERRIZ BLUES SESSIONS izenburupean. Bikote bezala grabatzen duten bigarren diska dugu hau, lehenengoa orain bost urte kaleratu zutelarik Andaluziako Cambayá zigiluaren izenpean.

Diska honetan, ohizko instrumentuetaz gain, washboard-a (errota garbitzeko egurra), kazooa, mandolina, turuta eta antzekoak agertzen dira,

diska akustikoa osatuz. Era berean, JOSEBA TAPIAK hiru abestitan parte hartu du, bikain arituz. Gainerako instrumentuak, JOCKERS taldearenak dira, aurreko diskan bezala.

Grabaketa saioak ia zuzenengan burutu ziren Berrizko LORENTZO RECORDS-en urtarrilaren amaieran zehar eta GAZTELUPEKO HOTSAK herriko zigiluaren izenpean kaleratuko da.

### 2. ZAZPI ESKALEREN ITZULERA

Etenaldi motz baten ostean, berriz ere badatozkigu bertsolari gazte hauek diska berri batekin, oraingoan "GAZTELUPEKO HOTSAK" zigilupean.

Orain bi urte pobrezari buruzko diska egin ondoren, duela hilabete batzuk berriz elkartu eta Euskal Herriko kaleetatik zehar dabizen drogei buruzko diska grabatzeari ekin zioten. Beronen izenburua BARRENKALEKO BLUESAK da eta azarorako kalean egotea espero da.

Musika estilo desberdinak batzen dituen iraupen luzeko diska izango da eta bertan sokazko instrumentuak eta akustikoak dira gehien


nabarmentzen direnak, alboka, bibolina, mandolina eta trikitrixa kasu.

Honetaz gain, gonbidatuak ere badaude diska honetan, halanola CUBAKO SEPTETO SANTIAGUERO-a, CARLOS MAHOMA (RIP) eta baita herriko jendea ere ( OLATZ LARREATEGI panderoa jotzen eta XABI LABAIEN pianoa jotzen)

Talde honen ardatzak JOSU ZABALA (HERTZAINAK), IGOR ELORZA eta UNAI ITURRIAGA dira. Grabazio eta nahasketa lanak, berriz, LORENTZO RECORDS-en burutuko dira, eta K.D. formatoan kaleratuko da.

3. ÑACO GOÑI harmonikajole madrildarrak BLUESCAVIDAS taldearekin batera jotzen duen iraupen motzeko diska bat kaleratu berri du udan GAZTELUPEKO HOTSAK zigilupean. Diska hau Madrilgo BOX estudioetan burutu zen FRANCISCO

SIMONen zuzendaritzapean (RHYTHM BLUES).



GAZTELUPE  
TABERNA

Tlfnoa: 752081

# EUSKAL JAIA



Irailaren 28an egingo da aurten Euskal Jaia Soraluzen. Berriz ere, urtero bezala, dantzariz beteko dira gure herriko kaleak eta nonnahi entzun ahal izango dira txistularien doinu ederrak. Euskal jaiaren informazio gehiagoren bila Euskal Jaiaren antolaketa batzordeko kide batzuegana hurbildu ginen. Eta honako galdera hauek egin genizkien:

- Noiztik eitzen da Euskal jaixa Plaentxian?
- Orain dela 27 urtetik, uste dou 1970ean egin zala lenengoz , baita urteren baten egin barik geratu zala ere.

**Zein helburu dauka zuentzat Euskal Jaixak?**

- Dantza taldea bildu eta indartzea nagusizat, Plaentxian behintzat bai eta honekin batera benetako jaiegun polit bat eixia, jai euskaldun bat. Euskal kulturaren alde.

**Zein arazo izaten dituzue antolatzeko orduan?**

- Nahi baino gehixao, fetxa jartzeko aldetik bat, beti baidao beste zeozer eta egun egoki bat topau bihar izaten da. Beste bat jendiak gero eta dantzari gutxiago hartzen dituala etxian eta soziedadean jaten eman beharrak presupuestua igo eta dirurik bare eta zorretan uzten gaituala askotan.

**Arazoak lagata gauza berrirenbat ba al dao?**

- Berrixa? Bueno bai, nahizta joan zan urtian ere egon ziran aurten ere egongo dira poniak etab. Honekin asko irabazten dau jaixak jendia asko erakartzen dau eta. Hankapalo ta buruhaundixak be eongo dia aurten.

**Mezuren bat ba al dakazue herrixantzat?**

- Bai, badaukau bai. Hiru ta oso garrantzitsuak: animatzeko dantzarixak etxian hartzera, ohitura politxa dalako da asko laguntzen dabelako, animatzeko baita baserritarrez jaztera (oso politxa izango litzake jendia jantziko balitz), azkenengoz herrixan jai bat dala eta parte hartzeko.

***Ondo pasau!!!***



## PLAZENTZIAKO BERBAK ETA ESAMOLDEAK

### --BERBAK

**ERAKO:** \_tratu eta umore oneko pertsonari deritzo.

adib. Arlote itxura dauka, baina erako gizona da

**ERLAKASTEN:** \_zadar, "forúnculo".

adib. -ze ete da grano modoko hau?

-Ene horrek erlakastena izateko itxura guztia daka.

**ERRENGILARAN:** buruz ilaran , "de carretilla"

adib. - horrek errengilaran ikasi dau leziñua

### -ESAMOLDEAK

**DAGOEN DAGOENEAN:** Dagoen bezala

adib. hobe dou daon daonian lagatzia

**ESNE BITSETAN:** Eztitan, oso gustora

Adib. Esne bitsetan bizi dia ezkonbarriz, gero izango dia kontuak.

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

*sukaldaritza tradizionala*

Bataioak, jaunartzeak...  
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11      Tfnoa: 75 10 02  
SORALUZE

*Kontulan Aholkularitza, S.L.*

*Asesoría Empresarial*

Santa Ana, 13 - 1. Ezk.      20590 SORALUZE  
Tel. (943) 75 17 82      (Gipuzkoa)

## Aries:

Osasuna: Udaren eraginez "mejorauta" ikusten zaitut, kolore ederrekin eta, kontuz halere eztarria zaindu behar duzu eta .

Dirua: Ez zara ez zu makala! uda osoan dirua bota ahala eta orain hiru hilabetez egoera petrala.

Maitasuna: Ligatu eta ligatu egin duzula udan ...nork sinestuki dizu hori? "Trukatutako" argazkiak erakutsi.

## Taurus:

Osasuna: Zeureari ezin ostera! mejoratzia esan, zu gizendu egin zara eta ez gutxi! Txekeoa egizu ea kolesterolak noraino igo dizun.

Dirua: Udazkena, ze pena! bukatu zaizu bi pagen azkena, orain dirua izateko, lan egin behar aurrena.

Maitasuna: Oi bexamela eta pastela, oi bexamela... axukre koxkor hori jan beharko zenuke.

## Gemini:

Osasuna. Atsedena hartu behar duzu, estresak har ez zaitzan ez hainbeste ibili jairik jai eta lo egin lasai, gogorra dela ?BAI.

Dirua: Ipuinak kontatzen hasi beharko duzu txanpon baten truke

Maitasuna: Zure bigarren parte horrek ez daki zer nahi duen ere, beraz ez pentsatu eta senari jarraitu

## Cancer:

Osasuna: Nekealdi hori ez da luzarorako izango, zuri oporrek egiten dizute kalte eta. Lan metodikoa egin.

Dirua: Inbertsiorako garai aparta duzu, burtsan jokatu diru horiek! Ez duzula dirurik!? eta zer nahi duzu nik ematea ala?

Maitasuna: A zer ezustekoa argitara ikusi zenuenean! iluneko intxaurrek hamalau , ikusi ... eta lau!

## Leo:

Osasuna: lana, oporrik ez , zubirik ez, dirurik ez, maitasunik ez,...deprea...

Dirua: Bonolotoko zenbakiak behintzat alda itzazu, beti ondokoak ateratzen dira eta...!

Maitasuna: Maite ez zaituelakoa zeure irudipena da, Jorje Negreteren abestia dirudizu. Ez gero horrelako bukaerarik eragin gero!

## Virgo:

Osasuna: Udan hain ondo eta orain udazkenarekin berriro ere zorabioak! ez diozu lanari edo alergia eukiko ez?

Dirua: Gaitasun ekonomikoan gainbehera zoaz, baina txanponak erabili ezker ez zaizkizu ugartuko.

Maitasuna: Hori bai duzula ugartuta, bihotza! Animatu eta ez izan hain lotsa!!!

## Libra

Osasuna: Kakalarria oraingoan! baina zein tripa zahar duzu zuk? Neurritz jan eta gutxiago edan.

Dirua: Libra gora , dolarra gora, zeure inbertsioak ere gora... Kontatuko al diguzu nola egin duzun?

Maitasuna: Diruak batzen ditu aurkariak, diruak lautu aldapak, baina adarrak, horiek ez ditu desagertarazten.

## Eskorpio:

Osasuna. Oinetako mina izango duzu, baina ez pentsa gero "gota" edo denik, aldatu zapatak oinez.

Dirua: Lanerako gogo ezak badu irtenbiderik, lanari ekin! Euskera ikasten inbertitu dirua mesedez!

Maitasuna: Begiratu ere ez egiteko esan nik eta zuk erosi gainera kamasutra, baina ergela al zara?

Eros ezazu talkoa.

## Sagitaris:

Osasuna: Hau aldaketa hau! Beste bat dirudizu barren!, txukuna garbi, usain ona... osatu zara betiko!

Dirua: Orain hobeto eh? ez esan inori nire aholkuari jarraitu zeniola!

Maitasuna. Maiteño horrek aldarazi zaitu, jakina, nola bestela! helduiozu eta ez aldegiten utzi!

## Capricornis:

Osasuna: Telefonoan egun osoa zintzilikatuta egotea ere, gaixotasuna da eta kontuz... infartotik hurbil egon zaitzke eta!

Dirua. Infartoarena kontu korronteari begiratzean emango dizu, gorri-gorria duzu eta!

Maitasuna: Nola ligatu daiteke oporretan hain urrutiko batekin? Maitasunak ez du distantziarik, baina gutunak ere idatz daiteke.

## Acuaris.

Osasuna: Ia ia adiktoa bihurtu zara oporretan, zaindu ezazu zeure buru galidean sartu aurretik.

Dirua: Oraingoan ez da ametsa izango, hor duzu saria eta ondo erabili!

Maitasuna: Izugarri polita da, erakargarria benetan, baina utz ezazu pakean edo itoko zara penetan.

## Piscis

Osasuna: Ez duzu piperrik ere ikusten , joan zaitzez optikara eta betaurrekoak jarri. Aiba, zenbat gauza dagoen munduan!


Diru: "Lan lasterra lan alferra" dena berriro egin behar baduzu irabazi "ederra".

Maitasuna: Idatzi gutuntxo bat Pil pilean eta ligatuko duzu! Ez duzu sinistu ? Proba egizu behintzat!

## "BURUESTRESAK"

### 1-BURUA ASTINDUZ...

Lehenengo buruestres honetan zure bizkortasuna frogatuko dugu... minutu erdia daukazu lauki eta borobilak zenbatzeko...Hasi IA!!!!



2- Logotipotxo batzuk izkutatu ditugu aldizkarian ...minutu bakarra daukazu zenbat dauden asmatzeko...**DENBORA!!!**

3-Minutu erdia daukazu eragiketa matematiko hau egiteko ...Kalkulagailu gabe jakina!!!

$$289+385-134:2 \times 62-110=$$

4-HIZKI HAUEK ERABILIIZ OSA EZAZU HITZ BAKARRA. 15 segundu dituzu.EKIN!!!!

E A  
R T A  
K K A

BURDINDEGI  
ARTIKULUAK

TRESNERIA

GILTZEN  
KOPIA

**iBaiONDO**

AGUSTIN OSA ORMAETXEA

KALEBARREN, 14  
TLF: 751199

SORALUZE

**GILA TABERNA**

**OSO GIRO ONA!!!**

**SORALUZE**

## Olatz Oregi

### - Non ikasi duzu?

Elgoibarren ikasi dot, Bide Egin eskolan, hemengo udaletxian bitxartez. Hor egon nitzan hamaika hilabetez. Praktikak Eibarko okindegi batian egin nitxuan eta hau luzatu egin zan. Oin Inemen marketin eta kalkulo ikasten nabil eta honekin batera Itxaropena tabernan lan egiten dot.

### - Zein da zure espezialitatea?

Reposterixia, gehixen gustatzen jatana da eta ez neban beste aukerarik euki.

### - Zeintzuk dira zure helburuak?

Gustauko jatan sukaldari moduan lan eitxia eta egunen batian nere jatetxia montau.



### ARRAULTZA ESKALTZATUAK (entremes beroak)

#### Osagaiak:

- |                         |              |
|-------------------------|--------------|
| - 4 arraultza           | -2 litro ur  |
| - ozpin txorroztada bat | -50 g gurina |
| - 250 g irina           | -esne pixkat |
| - ogi birrindua         |              |

Bi ur litruak sutan jarri ozpin pixkatekin, behin irakiten hasi eta gero arraultzak bota, frijitzeko moduan. Egosi eta gero espumadera batekin etara trapu garbi batera, bertan hozten utzi, gero gatza bota.

Ondoren bexameletan pasau, gero ogi birrinduan eta olio nahikoarekin frejidu.

#### BEXAMELA :

Gurina berotzen utzi eta urtu ondoren irina bota dana ondo nahastuz. Gero esnia pixkanaka botatzen juan nahi dan sendotasuna lortu arte.

**On egin!!!**

**MARISA  
ILEAPAINDEGIA**


**Tfnoa. 752243**

**Rabal kalea 19-1 • SORALUZE**



## PLAENTXIKO ZUBIAK

*Deba ibaiak Soraluze herria bi zatitan banatzen du. Erdi-erditik ibaia pasatzen denez, Soraluzek zubi asko ditu. Hauek dira batzuk:*



**Txurrukeneko zubia:** *porlanezkoa da. Bere iparraldean herria du, hegoaldean Sologoeneko elektra-etxea dago, ekoaldean lantegiak daude eta mendebaldean, mendiak eta kurba bat dago (Hirukurutzeta kurba izenekoa). Orain dela 30 urte Soraluzeko jendea bertan bainatzen zen. Leku honi Soraluzeko hondartza deitzen zioten. Uholdeak egoten direnean hau da urak harrapatzen duen lehenengo zubia.*

**Errekaldeko zubia:** *harrizkoa da eta baldosak ditu. Iparraldean eta hegoaldean etxeak daude. Ekialdean, Olako presa dago. Ibaian ahateak ikusten dira. Menditik jeisten den errekatxotik amuarrainak jeisten dira. Baina, Deba ibaia oso zikin dagoenez, amuarainak hil egiten dira. Zubi hau Txurrukeneko zubia baino altuagoa da.*

**Gilako zubia:** *porlanezkoa da, farolak eta espaloiak ditu.*

*Iparraldean udaletxea kokatzen da. Hegoaldean mendiak aurkitzen dira. ekialdean etxeak daude eta azkenean, mendebaldean, herriko "paseo berria" deiturikoa dago. Zubi hau berezia da, munduan*

*bakarrenetarikoa da kotxeak aparkatzen dituztelako. Plaentziako beste zubiekin konparatuz zabalena da*

**Gabolatzeko zubia:** *zubia harrizkoa da eta bertatik autoak pasatzen dira.*

*Iparraldean etxeak ikusten dira. Hegoaldean S.A.P.A lantegia dugu.*

*Ekialdean, presa bat dago eta mendebaldean Ezozki auzoa. Ahate txikiak, haundiak eta marroiskak daude. Intsektuak eta jendeak botatzen dizkien gauzak jaten dituzte. Ahate frantsesak eta errealak daude.*

**Poligonoko zubia:** *zubia porlanezkoa da.*

*Iparraldean poligono industrialala dago. Hegoaldean basoa dago. Ekialdean, bariantea ikusten da eta azkenik, mendebaldean Arrate ikus daiteke. Zubitik ibaian harriak ikusten dira, eta baita larreak ere. Zirkulazio seinaleak ditu. Kotxeak pasatzen dira eta espaloiak daude.*

- Eduardo Alvarez
- Patricia Campos
- Beatriz del Campo
- Laura Fernandez
- Alberto Tello
- Alexander Losada
- Naiara Martin
- Yolanda Moreno
- Oihane Sanchez



\* Soraluzeko haurren XXVII. Euskal Jaia igande honetan, hilaren 28an, egingo da eta egitaraua honako hau duzue:

- 9:30etan Herriko txistularien kalejira
  - 10:15ean Taldeei ongi-etorria eta txorizo ogitartekoak jango dira
  - 11:30etan Kalejira dantzari eta txistulariekin ( Frontoia, Kalebarren, Plaza Zaharra, Gabolatx, Ezoziko Etorbidea, Zubia eta Santa Ana eta bukatzeko Frontoia)
  - 13:30etan Haurren banaketa bazkaltzeko
  - 14:00etan Txistulari eta arduradunen kalejira- poteoa
  - 17:00etan Alardea Plaza Zaharrean:  
Agurra, herri bakoitzeko bikote batek  
Neskak: Arku Dantza (B) Kaliak, Zinta Dantza(B).  
Mutilak: Txankarranko, Jorrai Dantza, Ikurrin Dantza.  
Mixtoak: Gorulari, Makil Txikiakakoa, Eusko Dantza.  
Danak: Saint Petit, Txulalai, Fandango eta Arin-Arin.
- Bukatzeko: Pottokak.

Antolatzailea: Urrats Dantza Taldea  
Babeslea: Soraluzeko Udala

\* Gaztelupe tabernak hainbat kontzertu antolatu ditu. Irailaren 28an " Raul Ruiz y La Banda" -k joko du. Urriaren 23an berriz, Dinamarkatik etorritako " Martin Andersen Trio" eta azaro aldera, " Dinamita Blues Band" taldean jotzen duen Madrilgo bikote bat izango da bertan.

Horrez gain, Gaztelupeko Hotsak hiru diska berri kaleratuko ditu datozen hilabeteotan:

- Urrian Malcom Scarpa eta Ñaco Goñik bigarren diska plazaratuko dute. " Berriz Blues Sessions" izenburua du lan honek eta bertan, ohiko instrumentuetaz gain kaoozoa, mandolina, turuta, washboard(erropa garbitzeko egurra)...entzun daitezke.

- Azaroaren lehen egunetan Zazpi Eskaleren lan berria izango dugu ere esku artean. Duela hilabate batzuk elkartu eta " Barrenkaleko Bluesak" izeneko ikuskizuna prestatu zuten. Musika estilo ezberdinak batzen dituen iraupen luzeko diska da hau.

- Ñaco Goñi harmonikajoleak, bere aldetik, " Bluescavidas" taldearekin grabatu du udan iraupen gutxiko C.D. bat eta laister entzuteko aukera izango dugu.

\* **Soraluzeko AEK-ak matrikulazio kanpaina zabalik du hilaren 30era bitartean. Izena emateko maisuen etxera joan zaitezke. Ordutegia honako hau da: goizez, 10etatik ordubata arte eta arratsaldez, 4:30etatik 7:30ak arte. Edo bestela telefonoz dei dezakezue 7514 34 telefono zenbakira. Azkar ibili !**

\* Nesken futbito partiduen jarraipenari buruzko bilera antolatu da urriaren 3rako. Bileraren arratsaldeko 8:30etan izango da EPAko lokaletan (Baltegieta). Partiduetan jokatu nahi duten neska gehiago egon izanez gero, bilerara joan daitezke. Horrezaz gain, urriaren 17an futbitoan aritutako nesken afaria izango da. Poteo ordua: arratsaldeko 7:30etan Gaztelupe tabernan.

\* **Soraluzeko Herri Batasunak**, Mahai Nazionalaren epaiketa dela eta, **urriaren 12an Bilbon** egingo den manifestazio nazionalera joateko deialdia egiten du.


\* **Ezoziko Ama Abesbatzak** gonbidatuta, urriaren 18an Orioko "Salatxo" Abesbatza etorriko da Soraluzera. Kontzertua arratsaldeko 8etan izango da elizan.

\* **Soraluzeko Udalaren** eskutik hainbat ekitaldi izango dira azaroan:

- Azaroaren 14an "Naroa Enekotegi" mezzo-sopranoa etorriko da.

- Azaroaren 21ean berriz, "Easo" Abesbatzak kontzertua eskainiko du.

Bestalde, azaroaren 8rako Bigarren Gaztañerre Azoka antolatu dute.



----- EDOZEIN LARUNBATETAN DEBAN TRINIFA DEZAKEGU -----

Blankarekin nago,  
nere aurpegia zurbildurik dago,  
baina zu nigandik  
urrun zaude.

Zer egin behar dut musukatzeko,  
lore polita?  
Zure aurpegiaren loreak beti  
alaiak daude.

“Amaia” neskatxa oso ona da.  
Zer...?, nola?  
Zer esan duzu, mutiko?  
Amaiak oso ongi dantza egiten daki  
eta eman behar dizkit niri  
musutxu batzuk ahoan  
eta aurpegian puskatzeko  
zegoen lasaitasuna.  
Hori da pasioa,  
eta hau onena da  
norentzat eta harentzat.

Amaia...bihar  
bi musutxu goxoak  
eman behar dizkidazu:  
bata, nire ezpain gorri-gorrietan  
eta bestea, nire bihotz urdinean,  
zure begietan somatzen duela,  
nere bihotza apurtuta daukadalako  
eta negar egiten hasi zen  
baina zure begi urdinak  
transparentea gehiago  
haien nire baitan somatzen dituzte.

Atzo, edozein larunbat Deban,  
eta, noizean behin  
zuek, neskak, lo egitera  
joaten zarete.  
Ohera joan, bai  
baina nirekin  
ala  
ezer ere ez.  
Ulertzen duzue, katutsuak?  
Amaia, larunbat hori, nire katutsu  
aukeratua,  
katu Siamesa, oraindik gaueko  
printzesa,  
Zumaiako markesa, Debako dukesa,  
ala rubixu frantsesa,  
erregin bitxia haren gabeko  
galiziarra festa.

Olerki hau Debako  
Zubelzu Tabernan idatzita dago  
(1997ko apirilaren 27ko gaupasan):  
GERO maiatzaren 2an Eibarko  
Karreja Tabernan zuzenduta, hau ere  
gaupasa batean.

GABRIEL GALAN

**JUAN MARI  
ARRAINDEGIA**

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!

TFN: 75-24-40

SORALUZE

**ALAITZ TABERNA**

**EZOZI ETORBIDEA  
TFNOA. 75 11 90  
SORALUZE**



### Galdeketeixon ?

AIZU!! Begira zein erreza izan daitekeen "CD" bat eskuratzea !!!

Prestatu zure burua, erlajatu, konzentratu , motibatu...eta bidali erantzunak berehala 27. posta kutxatilara...oparia zain daukazu...

1-ZE TITULO JASO DU AURTEN LASKURAIN PELOTARIAK?'

.....

.....

2-ZENBAT ZUBI DAUDE SORALUZEN???

.....

.....

3-ZENBAT TELEFONO KABINA DAUDE???

.....

.....



S  
O  
R  
A  
L  
U  
Z  
E

**YON IÑARRA**  
HARATEGIA ETA URDAITEGI.

KALEBARREN, z/g      Tfnoa. 751249  
SORALUZE

## JAIOTAKOAK

- \* Mikel Oregi Leturiondo
- \* Irene Perez Arribas
- \* Edurne Prol Espiga
- \* Joseba Mendizabal Ariznabarreta
- \* Andrea Blanco Otero
- \* Cristina Bouzas Rodriguez

## HILDAKOAK

- \* Carmen Guenetxea Lazpita
- \* Lidia Alberdi Zuazo
- \* Clemente Arizaga Arrillaga
- \* Josefina Telleria Aizpiri
- \* Ciriaco Arizaga Laskurain
- \* Rufino Ruiz Gomez
- \* Emiliana Ruiz Tornos
- \* Jose Mari Larreategi Alzibar
- \* Jose Eguren Larreategi

**AURREKO ALEKO**  
( 6. zenbakia)  
**LEHIAKETAREN**  
**IRABAZLEA:**

**OIHANA MENDIZABAL**  
**IZAN DA**



**Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskeini dutenak:**

- **OPTIKA LAKUESTA.**
- **JUANMA ARGAZKI DENDA.**
- **BEGOÑA TXURRUKA URDAITEGIA.**
- **MARIAJE MERTZERIA.**
- **TXURITXU GOZOTEGIA.**
- **MARI MAR HARATEGIA.**
- **KLIP PAPER DENDA.**
- **SANTA ANA KIROLAK.**
- **MARIA JESUS GOZOTEGIA.**
- **ARKUPE ARROPA DENDA.**

## **AUPA EDURNE!!!**

*Muxu handi bat eta besarkada bero bat Soraluzeko Pil pilean aldizkarian lanean dihardugunon guztion partez. Gogoratu zu bezalako kazetariak behar ditugula gure aldizkaria aurrera ateratzeko, beraz, badakizu ... zure zain gaude.*

**SORALUZETAR GUZTIOK**

**ZUREKIN GAUDE.**

**ANIMO ETA EUTSI GOGOR!!!**

Erredakziotik deialdi zabal bat egin nahi diegu Pil-pilean taldean parte hartu nahi duten guztiei. Gogorarazten dizuegu interesa duen oro gonbidatuta dagoela Urriaren batean izango den bilerara.

**BJLERA** : Maixuen Etxea 5. zb, behea, erdia


**NOJZ** : Gaueko 9etan Urriaren 1ean (asteazkena)

**ZERTARAKO** : Taldearen berri jasotzeko, aldizkariaren inguruko informazioa jasotzeko eta aurrerantzen elkarlanean arituko garenez gu guztiok ezagutzeko.

Gure artean izango zaitugulakoan...!!!

**E**SKOLAN **U**DALETXEAN **S**ORALUZEN **K**ALEAN **E**TXEAN **E**REKAUETAN **L**ANTOKIAN

# EUSKERA GALDUZ GERO... AKABO EUSKAL HERRIA



MAITE  
DEZAGUN  
EUSKERA

Soraluzeko **æek** Euskaltegia

**EUSKARA IKASTAROAK**

*Maila guztiak*

**EGA eta ALFABETATZE**

*Matrikula epea : Irailak 30*

**INFORMAZIO ETA MATRIKULA**

Soraluzeko **æek** Euskaltegia

**Maixuen Etxeak • Tlf. 75 14 34**

UDALAREN LAGUNTZAZ